

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2026ko irailak 25 - 1409 zenbakia

TAILERRETIK KULTURARA



T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
babestu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
babestuta egongo
den **garantia**

OSASUN GIDA

DENTISTAK

943 70 00 82 / 688 68 96 02

Amaia & Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 19- 3.º E. Eibar
943 70 72 17 | 680 42 29 08
amaia@amaisnaoladentologia.com

arat.
odontología clínica dental

ZURE
IRIBARRE
ONENA

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 205 851
www.aratclinica.com

EIBAR · HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
943 7070

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

BISTA·EDER
Hortz Klinika · Clínica Dental

T: 943 70 00 82

Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / FAD
Ortodontzia / Inplantak / laser Teknologia

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Bias Etxebarria, 3
Tinos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplantak

Bidebarrieta, 7 - 1.º E. 943-782866

Odontologia
Biologikoa

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

SONRISALUD
odontología clínica dental

Ortodontzia | Inplantologia
Hortz estetika | Tratamenduak

Toribio Etxebarria, 23 behe, EIBAR
943 23 14 14 · www.sonrisalud.es

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. OROZCO VENTURA
Odontologian Lizentziatua
Unzaga plaza 5, 4º I, Eibar
Tel. 943 70 23 85

GINEKOLOGIA

Dra. Laura Martínez **Dr. Alejandro Recas**

GINECOLOGÍA
EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

FISIOTERAPEUTAK

ANE MENDIA
108 kolegiatu zela.

- FISIOTERAPIA
- KINESIOLOGIA
- Puntzio eta TRITEXENDAK
- A. gaiturak + DEPRESIOAK

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ARRAGUITA, 20
Tlf: 943 53 04 42
ane_mendia@hotmail.com

masajeak eta
tratamenduak

FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBERRIA

1089 kolegiatu zela.

I. Ojanguen, 2 678 746 617

Julian
Etxebarria, 7 688717529

muina
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Zoru Pelakoa - Fisioterapia orokorra - Talde saioak
Irene Alberdi Sarobe

Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubeen ikusgai



www.etakitto.eus



Jaiak ospatuko dira asteburu honetan, Ipuru auzoan. Aitzakia horrekin, bertara joan gara auzoko toki ezberdinak bertatik bertara ezagutzera eta, noski, jaietarako zer prestatu duten jakitera. Gora Ipuru!



eta kitto!
euskarako elkarteak



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Iruñe Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Marasmia Eibarko Talde Feminista martxa betean

Kaixo kaixo!

Ikasturtia hastiak in batera Marasmia Talde Feministako kidiok be martxan hasi gara. Mugimendu beteko garai-xan murgilduta gauazen honetan, guretzat ezinbestekua da Eibar feminista batera bidian antolatuta eta saretuta mantentzia, kaliak aldarrikapenez hartzia, zein elkarriket- ta seguruetarako eta elkar babeserako espazixuak eraiki eta elikatzia. Horregaitxik, Marasmiako kidiok iraila indarrez hartu dogu eta borrokarako gogotsu gaude!

Gainera, jakin badakigu Eibarren asko garala herri fe- minista batekin amesten dogunak, eta horregaitxik, gutun honen bidez, adin, inguru eta ibilbide danetako emakume eta genero-disidente orori taldera hurbiltzeko gonbidapena luzatu nahi dotzuegu. Hurrengo bilera irailak 30ian ingo dogu, 18:00etan, Arrate Kultur Elkartian. Animau eta hurbildu!

Bestalde, edozein zalantza badakazu, bileretara hur- biltzeko asmuan berri aurrez eman nahi badozkuzu edo aurrerago taldera batzeko gogua badakazu idatzi lasai sare sozialetara (@marasmiaeibarkotaldefeminista) edota emailera marasmiaeibarkotaldefeminista@gmail.com)

Gora borroka feminista!

Marasmia Eibarko Talde Feminista

Hortik esanak



Geroz eta garestiago daude etxebizitzak, eta halere, saldu eta saldu ari dira. Ez da lehen aldia iragarki baten jakina- razpena mugikorrera iritsi, ordu gutxitara bertara sartu, eta etxea dagoeneko saldu dela ikusten duzula. Burbuila lehertzeaz beharko lukeela pentsatzen duzu orduan, jasan- gaitza beharko lukeela metro karratuaren salneurriaren etengabeko igoerak, baina ez, saltzen segitzen dute pisuek, prezioa egunetik egunera igo arren.

Estatistikarik kontsultatu gabe, lepoa emango zenuke etxea erosten duten belaunaldikide gehienek –bakarrik erosten dutenek behintzat, baina gaur egun bikotea izan arren asko dira ere pisua norbere kabuz erosten dutenak, zer gerta ere– gurasoek utzitako diruari esker erosten du- tela. Besterik ezin da: alokairu neurrigabeek eta prezioen igoerari, mingaina kanpoan, atzetik ezin segika doazen soldatek ez dute sarrerarako behar diren milakakoak aurrezterik uzten. Eskerrak beraz, eskerrak oraindik, eske- rrak luzaroan, gurasoei.

Ander Perez Argote (BERRIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PROBALARI. → Idi probetan itzain egiten duena. “Ibargaiñ, alkate izana, probalari entzuna zan”.

PROBALEKU. → Probak egiteko lekua. Gaztelarazko ‘probadero’. “Lehen korrida-plazan eguan kalzadia, probalekua. Lehen danian eguan, Elgoibarren be bai eta... herri danetan probalekua”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ZAPATUA 26
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ASTELEHENA 28
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
MARTITZENA 29
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
EGUAZTENA 30
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 1
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
BARIXAKUA 2
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (J. Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Felicia Rejo Lorenzo. 93 urte. 2026-09-06.
- Sole Oregi Zabaleta. 96 urte. 2026-09-17.
- Jaione Eskarne Ajuria Basterretxea. 92 urte. 2026-09-18.
- M' Angeles Sarasua Zabala. 95 urte. 2026-09-20.
- Angel Arrizabalaga Iriondo. 63 urte. 2026-09-20.
- Valentina iriondo Manzisidor. 92 urte. 2026-09-21.



Argazkian, On Ekin lehiaketaren aurreko edizioan saria jaso zuten ekintzaileak. EKingUNE

On Ekin enpresa ideia eta proiektuen lehiaketaren edizio berria martxan da

On Ekin enpresa ideia eta proiektuen lehiaketa XIV. ediziora ailegatuko da aurten, eta horren aurkezpena egin dute Jon Iraola alkateak, Vanesa Hortas Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntzako zinegotziak, eta Jaione Leibar (Ikale Consulting) Ekingune elkarteko presidentek.

SILBIA HERNANDEZ

Jon Iraola Eibarko alkateak nabarmendu zuenez, “ekintzailatza funtsezko pieza da Eibarko eta Debabarreneko etorkizun ekonomikorako. Erakundeek ekintzaileen ondoan egon behar dugu, bide hori erraztuz eta baldintzak sortuz, talentua eta ideia onak hemen garatu ahal izateko”. Zentzu horretan, Iraolak eskualdeko ekintzaileak edizio berri honetan parte hartzera animatu ditu.

Izen-ematea urriaren 18ra arte egongo da zabalik, eta finalistek Errebal Plazan, urriaren 28an, egingo den ekitaldian aurkeztuko dituzte beraien proiektuak

Ekingune elkarteak antolatzen duen On Ekin 2026 lehiaketa negozio-idea berritzaileak dituzten eta horiek martxan jartzeko edo garatzeko laguntza behar duten ekintzaile eta enpresei zuzenduta dago. Izen-ematea 2026ko urriaren 18ra arte egongo da zabalik, eta finalistek Errebal Plazan, urriaren 28an egingo den ekitaldi berezi batean aurkeztuko dituzte beraien proiektuak

Aurten hiru sari egongo dira

Edizio honetako berrikuntza nagusia sarietan dago: orain arte bi sari banatzen zituzten, baina aurten hirugarren sari bat emango dute. Antolatzaileek esan dutenez, “horrela, parte hartzen duten proiektuak saritzeko eta haiei ikusgarritasun handiagoa emateko aukera egongo da”.

Ekintzailatza eta enpresa arloarekin lotutako eragileek osatutako epaimahaiak aukeratu du On Ekin Saria (2.000 euro, Gaztenpresaren aholkularitza eta bideo-podcast bat egitea).

On Ekin Proiektua Saria (1.500 euro, Gaztenpresaren aholkularitza eta bideo-podcast bat egitea) ere epai-mahaikideek erabakiko dute. Eta hirugarrena, Publikoaren Saria: 600 eurokoa izango da, baina kopuru hori handituko dela azaldu dute, “ekitaldian bildutako diruaren arabera”. Bertaratzten den publikoak erabakiko du saria nori eman, eta kasu honetan ere Gaztenpresaren aholkularitza izango du irabazleak.

Eskualde mailako lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek www.ekingune.com webgunean eman dezakete izena, eta oinarriak ere bertan kontsultatu ahaliko dituzte. Sari-banaketa ekitaldira joateko izen-ematea ere bertan egin behar da (urriaren 27rako).



Udal zerga eta tasetarako %3,2ko igoera orokorra proposatuko dute Udalbatzarrean

S.H. Udaleko gobernu taldeak 2027rako Ordenantza Fiskalen proposamena aurkeztuko du astelehenean, Osoko Bilkuran. PSE-EE eta EAJ-PNV udal-taldeek landu duten proiektuak udal zerga eta tasetarako %3,2ko eguneratze orokorra planteatzen du, “baina, aldi berean, salbuespen ugari sartzen ditu interes sozial berezikotzat jotzen diren zerbitzuetan”. Azaldu dutenez, “Udalaren finantza-nahikotasuna bermatzeko eta zerbitzu publikoen kalitateari eusteko helburuarekin diseinatu da proposamena, eta, gainera, gizarte-babese-

rako neurri berriak jasotzen ditu, zerga-onura jakin batzuk zabaltzen eta, batez ere, adinekoei zuzendutako baliabide berriak arautzen ditu”. Berritasun nagusien artean daude Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan guraso bakarrek familiarentzat eta genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimak direnentzat hobariak, familiako kirol-abonua 25 urtera arte zabaltea, tutoretzapeko etxebizitzak eta Adinekoentzako Eguneko Arretarako Udal Zerbitzu berria arautzea, eta Egonaldi Turistikoen gaineko Zerga sortzea.

1948an, 1963an eta 1945ean jaiotakoek urrian ospatuko dute kinto-jaia

S.H. 1948an jaiotakoek urriaren 2an (barixakua) egingo dute bazkaria eta, joan nahi dutenek, 100 euro sartu beharko dituzte Kutxabank-en, ES 8920 9550 3601 9137 889321 kontuan. Urriaren 3an, zapatuan, **1963an jaiotakoek** txanda izango da. Kultura aurrean elkartuko dira, 12:30ean, eta egun osorako egitarau zabala prestatu dute. Eta urriaren 15ean izango da **1945ean jaiotakoek bazkaria** (*Gran Reserva*). Untzagan (harmailen aldean) elkartuko dira, 12:30ean. Argazkia egin eta gero, egun osorako plana daukate: hamaiketakoak, bazkaria, musika, zozketak, animazioa... Izena emateko, 85 euro sartu beharko dira Kutxabank-eko kontu honetan: ES41 2095 5035 0091 2601 0277.



FUNEUSKADI
Funeraria mugica

FUNERARIA MUGICA
Funeraria mugica

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Oraola, 27 Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Elgoibar: Xikillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan) Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
---	--

Eibar • Elgoibar • Ermua • Bilbo • Barakaldo • Leloa • Getxo • Sestao
Portugalete • Santurtzi • Basauri • Galdakao

PUBLI RESA
disenatuaren pertsonalizazioa

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

www.publiresa.com
943 701 497 / 687 879 667

Armagin 3-5 beheak
publiresa@publiresa.com

ek!

**Zure publizitatea
herriko aldizkarian**

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus



Minbiziaren Aurka Gipuzkoan Elkartek hainbat jarduera antolatu ditu

S.H. Eskualdeko herritarren beharrei erantzuteko, datorren sei hilera hainbat jarduera antolatu ditu Minbiziaren Aurka Gipuzkoan Elkartek: Arnasketa tailerra (irailaren 30ean, 11:00etan, Kenko osasun gunean); Ibilaldi osasun-garriak (urriaren 6an, 10:00etan, elkartearen lokalean); *Nikotina kontsumitzeko modu berriak* hezitzaile / irakasleentzat (irailaren 30ean, 17:00etan; urriaren 20an, 11:00etan; azaroaren 25ean, 17:00etan. Online); *Norbera zaindu, zaintzeko*, senideentzat (azaroaren 11n, 16:00etan, elkartearen lokalean); eta *Nikotina kontsumi-*

tzeko modu berriak, gurasoentzat (urriaren 1ean, 17:00etan; azaroaren 26an, 11:00etan. Online). Horrez gain, bi hitzaldi egingo dituzte: *Ziurgabetasunaren kudeaketa* izenburukoa urriaren 19an izango da, eta *Dolua eta Eguberriak* izenekoak, abenduaren 16an. Biak izango dira elkartearen lokalean, 16:00etan.

Jarduera guztiak doakoak dira, eta ez da beharrezkoa elkarteko bazkidea izatea horietan parte hartu ahal izateko. Izena emateko 943 45 77 22 telefonora deitu, gipuzkoa@contraelcancer.es helbidera mezua bidali, edo elkartearen webgunean sartu daiteke.



Iruñerriko gazte antifaxistak askatzeko kontzentrazioa domekan

S.H. Iruñerriko gazte antifaxisten askatasuna eta berehalako abso-luzioa exijitzeko kontzentrazioa egingo dute domekan (urriak 27), 16:30ean Untzagan, 'Atxilotuak askatu! Faxismoaren normalizazioari ez!' lelopean. Zortzi lagun atxilotu ditu Guardia Zibilak eta Foruzaingoak aste honetan, antza denez Munduko Kopako finalaren egunean Berriozarren izandako gertakariengatik. Atxilotuetako lau aske laga dituzte, baina beste laurek gatibu jarraitzen dute.

Ederki pasatu zuten Arrate deitzen direnen jaiak

S.H. Arrate izenak elkartu ditu aurren ere argazkian ikusten dituzuen emakumeak, urtean behin ospatzen duten jaiaren 30. urteurrenean. Eguraldia lagun izan zuten domekan, eta egun zoragarria pasatu zutela kontatu digu honez-kero tradizio bilakatu den jaiaren sortzaileetako bat den Arrate Ba-lentziagak.





Altxa Buruaren Lurralde arteko II. Topaketa Eibarren egingo da, urriaren 3an

S.H. Altxa Burua haurtzaroan eta nerabezaroan teknologia berrien erabilera egokia sustatzeko konpromisoa duten familiek eta profesionalak osatutako elkarteak Eibarren egingo du Lurralde arteko II. Topaketa, urriaren 3an (zapatua), 10:00etatik 14:00etara, Eibarko Unibertsitate Laboralean.

Aurtengo topaketan, Francisco Villar doktorearen hitzaldia, Altxa Buruko esperientziak, eta Utopian antzerki talde gazteak antzeztutako *Nomofobia* obra izango dira, beste ekimen batzuen artean.

Parte-hartzea guztiz doakoa da, eta edozein familia joan daiteke, ez da beharrezkoa Altxa Burukoa izatea. Hala ere, aforoa behar bezala kudeatzeko, eta antolakuntza-lanak errezteko, izena emateko galdetegi labur bat betetzea eskatzen dute (jarraian daukazuen QR kodea eskaneatuta), urriaren 1erako.



Palestinako herriaren askatasuna eskatzeko manifestazioa zapatuan

S.H. Eibar Palestinarekin Herri Ekimenak manifestazioa antolatu du biharko (irailak 26, zapatua). Mobilizazioa Untzagatik abiatuko da, 13:00ean, “Israel genozida, Palestina askatu” goiburuari jarraituta, eta herritar guztiak bertan parte hartzera deitu dituzte, Palestinako herriaren kontrako sarraskiaren kontra protesta egiteko, eta palestinarren kontrako erasoak behin-betiko amaitzea eskatzeko.



Eibar Konecta herritarrei arreta digitala emateko zerbitzua abiatuko du Udalak

S.H. Herritarrei laguntza digitala emateko asmoz, Eibar Konecta izeneko zerbitzua ipiniko du mar txan Udalak. ASOCA (Asociación Capacidades en Acción) elkartearen bitartez emango dute zerbitzua, astelehenetik aurrera. Programak arreta berezia eskainiko die adinekoei, bakarrik bizi direnei, eza gutza teknologiko edo zailtasun sozioekonomiko urriak dituztenei eta, oro har, kudeaketa digitala egi-

teko laguntza behar duen edozein herritarri.

Horretarako, Torrekua gizarte-zentroan egongo dira astelehen, eguazten eta barixakuetan; eta martitzen eta eguenetan, berriz, Beheko Tokian. Batean zein bestean, goizez (09:30etik 14:00etara) eta arratsaldez (16:30etik 19:00etara) zabalduko dute bulegoa, eta ez da beharrezkoa izango aurretik hitzordua eskatzea.

BARRETEGIA STAND UP SAIOA

Barretegia stand up comedy probalekua hartuko du Debako Kultur Elkartek gaur, irailak 25, 20:00etan. Xabier Arraztoa, Iker Iribarren, Lander Varona, Joana Arakistain, Manex Astigarraga eta Esti Curiel baka-
rrizketariak ariko dira oholtza gainean. Saioa euskaraz izango da eta sarrerak 5 euroan daude salgai.



MUSIKA ERREMINTA ARTEAN

Maren abeslari bilbotarrak kontzertua eskainiko du irailaren 25ean, ostirala, Elgoibarko Makina Erreminta Museoan. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrerak 15 euroan daude salgai. Gaztetatik abestiak idazten hasi zen artistak pop doinuak eta bere ibilbideko kantu ezagunenak eramango ditu oholtzara.



BADATOR DEBAKO EUSKAL JAIA

Debak Euskal Jaia ospatuko du bihar, irailak 26, egun osoko egitarauarekin. Gaur, 19:30ean egingo den Kanean Kantuz saioak emango dio hasiera jai giroari. Bihar, berriz, goizean goizetik izango dira ekitaldiak: talo salmenta eta dastaketa, haur pintxo lehiaketa, txistularien kalejira, Zubietako joaldunak, Gure Kai dantza taldea, Musika Eskolako ikasleak eta trikitilariak.

15:00etan herri bazkaria egingo dute eta bazkaloste Laja eta Lutxurdiok girotuko dute. Arratsaldean buruhandiak eta Debrass taldea ibiliko dira kalez kale, eta egunari amaiera emateko, 23:00etan Ahantzi taldearen erromeria izango da Foruen plazan.



DEBABARRENEAN ZEHAR



“Eskualdeko garraioak” saileko hirugarren eta laugarren ataletan, Debabarrenean mugitzeko beste bi alderdi aztertuko ditugu. Hirugarrenean: zer aukera eskaintzen dituzte BAT, MUGI eta BARIK txartelek, eta non erabil daitezke?

Laugarrenean, berriz, egindako bi bidaia motak alderatuko ditugu: trena eta autobusa uztartzea, ala

ALBISTEAK

Ermuko saihezbidearen atzerapenaz galdetuko du aldeko plataformak udalbatzan.

Maltzaga eta Azitain arteko bidegorria itxi dute, harriak erortzeko arriskuagatik.



Irailak 25

ANTZER.	MEJOR NO DECIRLO	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)
MUSIK.	MAREN	20:00	MAKINA ERREMINTA MUSEOAN (ELGOIBAR)
AURKEZ.	GAZTE TOPAGUNE SOZIALISTA	19:00	GAZTETXEA (ELGOIBAR)
HITZOR.	ODOL EMAILEEN HITZORDUA	16:30	(SORALUZE)
JAIK.	IPURUAKO JAIK	17:00etatik	IPURUA (EIBAR)
AURKEZ.	GAZTE TOPAGUNE SOZIALISTA	18:00	GAZTETXEA (SORALUZE)
IKUSKIZ.	BARRETEGIA	20:00	KULTUR ELKARTEA (DEBA)

Irailak 26

FERIA	AZKEN ZAPATUKO FERIA	09:00	AITA AGIRRE (ELGOIBAR)
JAIK	AIASTIAKO JAIK	10:30	AIASTIA (ELGOIBAR)
IRAKUR.	MUNDUKO IPUINEN EGUNA	11:00	(SORALUZE)
IKASTAR.	ASTEAN BEHIN SUKALDATU	10:00	ERREBAL (EIBAR)
JAIK	IPURUAKO JAIK	11:00etatik	IPURUA (EIBAR)
MANIFA	ISRAEL GENOZIDA. PALESTINA ASKATU	13:00	UNTZAGA (EIBAR)
LEHIAK.	AIRE LIBREKO MARGO LEHIAKETA	09:00	(MENDARO)
JAIK.	EUSKAL JAIA 2026	10:00	HERRIAN ZEHAR (DEBA)
BISITA GIDAT.	DEBATIK ZUMAIARA ITSASONTZIZ	17:30	ANES ARRINDA (DEBA)

Irailak 27

JAIK	AIASTIAKO JAIK	10:30	AIASTIA (ELGOIBAR)
EKITALD.	TXIKI ETA OTAEGIREN FUSILAMENDU URTEURRENA	12:30 etatik	(EIBAR)
KON-TZEN.	UZT. 19-KO IRUÑERRIKO ATXILOTUAK ASKATU	16:30	UNTZAGA (EIBAR)



30 urte Portaleko ateak kulturari zabaltzen

Argazki gehiago
elkartaren webgunean:





Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**
Argazkiak **EIBARKO UDALA**

Portalea Kultur Etxeak 30 urte bete dituela eta, 'Portalea 30 urte' atzera begirako erakusketa zabaldu zuten aurreko barixakuan, hogeita hamar urte hauetan Portalean beraien lanak erakutsi dituzten 62 artisten lanekin. Urriaren 25era arte egongo da ikusgai, ohiko ordutegian (martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era). Erakusketa berezi horrekin batera, hitzaldi-sorta bat antolatu dute, kulturak bizitzako arlo ezberdinetan duen garrantziari buruz gogoeta egiteko. Eta, programazioa biribiltzeko, ate irekien jardunaldia eta urteurren-festa egingo dira bihar, zapatua.



Bihar beteko ditu 30 urte Portaleak. 1996ko irailaren 26an zabaldu zituen lehenengoz ateak, aurretik Aguirre y Aranzabal eskopeta tailerra egon zen eraikinean, Bista Eder kalean.

Hiru hamarkada eta gero, Portalea udalerriko gizarte, kultura eta kirol-kolektiboentzako baliabide garrantzitsua bilakatu da. Eibarko zein eskualdeko herritarrentzat eta euskal artistentzat erreferentziatzeko tokia. Goitik behera zaharberritu zuten eraikinak kulturaren zabalkunderako, herritarren partaidetzarako, prestakuntzarako eta aisialdirako guneak ditu. Eta bizibizirik dago, zabaldu zenetik gaur arte jaso dituen bederatzi milioi bisitek argi erakusten duten moduan. Horregatik, biharko eguna ospatzeko, festa antolatu dute: 19:00etatik aurrera dantzak eta musika egongo dira Bista Eder kalean, Kezka dantza taldearen eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren eskutik. Ondoren, txokolate-jana egongo da.

Kulturari buruz gogoeta egiteko hitzaldi-zikloa

Erakusketarekin batera hitzaldi-zikloa antolatu dute, kulturak bizitzako arlo ezberdinetan duen garrantziari buruz gogoeta egiteko. Parte hartuko duten lau hizlariak ospe handikoak dira, eta kulturaren etorkizunari eta kultura-ekipamenduei buruz arituko dira berbetan, lau ardatzetan banatuta: adostasuna, berdintasuna, garapen jasangarriko helburuak eta nazioarteko gatazka.

30. urteurren festa ospatuko da bihar (zapatua), Kezka dantza taldearen eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren eskutik

Hitzaldi guztiak Portaleko areto nagusian izango dira, 19:00etan, eta sarrera libre izango da, interesa duen edozeinentzat

Urriaren 1ean, Jon Sarasua bertsolari eta Mondragon Unibertsitateko irakaslearen txanda izango da

Alfons Martinell Gironako Unibertsitateko irakaslearekin zion hasiera atzo hitzaldi-zikloari.

Irakasle honek kultura kudeaketan diharduten pertsona asko trebatu ditu, ikastaro, unibertsitate, master eta graduondotetan, bai Espainian, bai Latinoamerikan.

Martinellek dimentsio kulturaren zeharkako ikuspegia defendatzen du, NBEren 2030 Agendan txertatzeko. Kultura iraunkorren bultzatzaile handienetako bat da bera eta, berak kultura ulertzeko duen modu horren arabera, kultura “balioa ematen duen, eta giza eta gizarte-garapena zeharka edo hainbat helburutan ahalbidetzen duen sistema gisa ikusi behar da”.

Astelehenean, irailaren 28an, izango da bigarren hitzaldia, Jesus Nuñez Villaverde nazioarteko harremanetako irakaslearen eskutik. Bakearen eraikuntzan, nazioarteko segurtasunean, eta indarkeriazko gatazken prebentzioan aditua da Nuñez, eta bere hitzaldiaren izenburua *Nazioarteko egoera, bizikidetzakak* da. Kultura-espazioetan ematen den bizikidetzaren aitzakiari buruz, hau da, espazio horiek batzuetan gerraren helburu izatearen aitzakiari buruz egingo du berba. Bere saioan, nazioarteko egoera, gerra hibridoaren kontzeptua, eta demokrazia giza eskubideetan oinarrituta defendatuko duten politiken beharra bezalakoak garatuko ditu. Hitzaldia gatzelaniaz izango da.



Jon Sarasua kultur-ekipamenduen garrantziaz arituko da urriaren 1ean

Datorren asteko eguenean, urriaren 1ean, Jon Sarasua bertsolari eta Mondragon Unibertsitateko irakaslearen txanda izango da. *Kultura, irekidura eta elkarriketa* izenburupean, Portalea bezalako kultur-ekipamenduen garrantziaren ideia garatuko du, “zorionez udalerri gehienetan zerbitzu publikoa baitira, baita ekipamendu horiek arautzen duten adostasuna, elkarriketa eta bizikidetzaren ere”.

Azken hitzaldia Amaia Gonzalez Llamas soziologo eta aktibista feministak emango du (gaztelaniaz). *Kultura-espazioak, berdintasun-espazioak* izenburupean, kultura-ekipamenduen sarea eta kultura-etxeak berdintasun-gune nola bihurtu diren azalduko du.

Hitzaldi guztiak Portaleko areto nagusian izango dira, 19:00etan.



Erakusketa handi honetan parte hartzen duten artista asko elkartu ziren inaugurazioan: Leire Kareaga, Esperanza Zabala, Baroja Collet, Angel Guenaga, Jose Luis Irigoien, Ainize Txopitea, Ines Medina, Jose Antonio Azpilikueta, Esther Galarza, Viviane Straub...



Ipurua auzoa jaietan murgilduko da asteburuan

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Azken urteetan bultzatutakoari eutsiko dio aurtengoan ere Ipuruako Jai Batzordeak eta hemen ditugu, berriz ere, iraileko azken asteburuan, Ipuruako Jaiak. Gaurtik domekara arte hainbat ekintza prestatu ditu batzordeak, adin guztietako eta gustu ezberdinetako lagunen nahiak asetzeko egitarauarekin. Gu geu bertan izan gara, Ipuruan, jaien aurreko egunetan nolako giroa bizi den bertatik bertara ezagutzen. Gainera, auzoan buelta bat emateko aprobeztatu dugu, gure sare sozialetan aurkituko duzuen bideoan ikusi dezakezuen bezala.

D enetarik aurkitu dezakegu Ipuruan: hainbat hezkuntza zentro (Jazinto Olabe haurreskola eta ludoteka, Argatxa haur hezkuntza zentroa, Eibar BHI, UEUren egoitza den Markeskua jauregia, Aspace), Argatxa jardinak (herrian dugun berdegune gutxienetako bat), hainbat kirol-gune (Ipurua futbol zelaia, kiroldegia, kanpoko igerilekuak eta bolatokia), merkatu plaza (gaur egun, bertan hainbat ekintza antolatzen dituzte bizilagunek, jarduera bizi-biziarekin), bi dorre erraldoi eta baita toki erlijiosoak ere (San Pio X eliza eta Sorkundearen komentua).

Auzoan hainbeste gauza egonda, jaiak ezin ziren falta. Urte askoan egon da Ipurua jairik gabe, 30 inguru, baina orain dela hiru urte jaiak berreskuratzeko ardura hartu zuten auzokide batzuek. Esan eta egin, egitarau potenteak antolatu dituzte azken urteotan, eta eguraldiak lagunduta, jendez bete da jaietan Ipurua. Beraz, aurtan ere egongo da festarako aukera.

Gaur, irailak 25, hasiko dira Ipuruako jaiak. 17:00etan, txokolatada egingo da eta Neledantzak erakustaldia eskainiko du Jazinto Olabe parkean. 18:45ean, kalejira egingo da Latuna Bando txarangarekin, Jazinto Olaben hasi eta, jubiletetik, Ipuruako dorreetatik eta Argatxatik igaro ondoren, Eibar BHI pareko parkean amaitzeko. Hor botako da txupinazoa, 20:30ean, eta musikari emango zaio paso. 21:00etan, Aittu erromeriak joko du eta, gauerditik aurrera, IN-DI DJ-ak girotuko du gaua.

Hurrengo eguna indartsu hasteko, 11:00etan, salda eta txorizoa banatuko dira Eibar BHI-ko patioan. 11:30ean, toki berean, herri-kirolak egingo dira. 15:00etan bazkari herrikoia egingo da eta bazkal ostean, 17:00ak inguruan, bingoan jokatzeko aukera egongo da. Umeez ere jolasteko aukera izango dute 18:00etatik aurrera, eurentzako tailerrak egongo baitira.



Judash talde eibartarraren kontzertua izango da bihar gaueko plater nagusia.

Biharko gaua ere musikaz beterik iritsiko da. 21:00etan, plater nagusia: Judash. Talde eibartarrak rock eta metal doinuak taularatuko ditu, bere lehen diskoan erakutsitako indarra agertuz. Joan den astean 'Izengabeak' lehiaketan bigarren postua eskuratu zuen eta bigarren astez jarraian zuzenean entzuteko aukera izango dugu, oraingoan denbora luzeagoz.

Judash-en ostean, 22:30ean, Iruko erromeria igoko da eszenatoki gainera eta dantzan jarriko du patioa. Eta dantzan jarraitzeko, 01:00etatik aurrera, DJ Mirenek girotuko du gaua.

Ipuruako Jaiak domeka eguerdian amaituko dira, baina azken eguna ere ez da nolanahikoa izango. Goi-za lasai hasiko da, 10:30ean toka eta rana txapelketa jokatu direlako Jazinto Olaben. 11:00etan tailerrak egongo dira toki berean eta, 12:00etan, meza San Pio X elizan.

Ordu berean, eta jaiei martxa bat gehiago sartzeko, dantza erakustaldia egongo da KAXA-ren eskutik eta, festak errematatzeke, 13:00etatik aurrera, bermutada egongo da 'Virginia y los Machines' eta 'Harri Artian' taldeek girotuta. Talde bietan, eibartarrak dira protagonista: Virginia Fernandez da lehen taldearen burua eta boleroak eskainiko ditu; 'Harri artian'-en atzean, bestetik, Arrate Delgado eta bere gitarra daude.



Virginia Fernandez eibartarrak boleroekin girotuko du domeka goizeko 'vermuteoa'. BEGO ELEXPE



JULEN BOLLAIN

Lau etxe

Eibarren etxebizitza alokatu nahi duzula imajinatu. Gaztea zara, lana daukazu, hemen bizi nahi duzu. Interneten sartu, etxebizitzak bilatu eta... lau. Lau etxe.

Orain dela egun batzuk, Eibar osoan lau etxebizitza baino ez ziren agertzen alokairuan etxebizitzaren salerosketa eta alokairurako Interneteko atari handienetako batean. 50 metro koadroko bat, 850 euroan. 65 metroko beste bat, 900 euroan. Eta hortik gora. Noski, interneten agertzen dena ez da Eibarko alokairu-merkatu osoa. Baina argazkia nahiko adierazgarria da.

Urteak daramatzagu Eibarren etorkizunaz hitz egiten. Industria indartsua behar dugula. Enpresa berriak sortu behar direla. Talentua erakarri behar dugula. Gazteak hemen geratzea nahi dugula. Merkataritza bizia behar dugula. Eskolak umeez bete behar ditugula. Kaleetan bizitza nahi dugula.

Guztiarekin ados. Baina bada galdera oso sinple bat ia beti ahazten zaiguna: non biziko da jende hori? Ez dago garapen ekonomikorik etxebizitzarik gabe. Ez dago talentua erakartzerik, ingeniari, irakasle, erizain edo langile batek ezin badu etxe duin bat aurkitu. Ez dago gazteak Eibarren geratzerik, 30 urterekin gurasoen etxetik ateratzerik ez badute. Ez dago merkataritza bizirik, biztanleria galtzen badugu. Eta ez dago jaiotza-tasa handituko duen mirari-kanpainarik, familia bat osatzeko lehenengo baldintza —bizitzeko toki bat edukitzea— gero eta zailagoa bada.

Etxebizitza ez da, beraz, gizarte-politika hutsa. Ekonomia-politika da. Industria-politika da. Gazteria-politika da. Demografia-politika da. Eta herri-politika da.

Eibarren badugu beste berezitasun bat. Ez gara Donostia. Ez gara Bilbo. Ez gara turismo masiboko herri bat. Teorian, horrek abantaila izan beharko luke etxebizitzaren arazoari aurre egiteko. Baina eskaintza hain da txikia, non prezioak gero eta urrunago dauden herritar askoren soldatetatik. Eta hor badago arrisku handi bat: normalizat hartzea.

Normalizat hartzea gazte batek 900 euro ordaindu behar izatea logela bakarreko etxe txiki batengatik. Normalizat hartzea 30 urtera arte gurasoekin bizitzea. Normalizat hartzea Eibarren lan egiten duen jendeak beste herri batean bizi behar izatea. Ez da normala.

Eibarren etorkizunaz hitz egitea gustatzen zaigu. Adimen artifizialaz, industria aurreratuz, berrikuntzaz, ekintzailatzaz eta talentuaz. Eta hori guztia ondo dago. Baina 2050eko Eibar gaur eraikitzen hasten da. Eta agian etorkizun hori ez da hasten teknologia kuantikoarekin, baizik eta gauza askoz sinpleago batekin: Eibarren bizi nahi duenak bertan bizitzeko etxe bat aurkitu ahal izatearekin.

“Eibarren badugu beste berezitasun bat. Ez gara Donostia. Ez gara Bilbo. Ez gara turismo masiboko herri bat. Teorian, horrek abantaila izan beharko luke etxebizitzaren arazoari aurre egiteko”

Sardina freskue ikuskizunarekin ekin dio ikasturteari Berbetan programak

Joan den martitzenean, eta eguraldia lagun, familia ugari elkartu ziren Untzagan Berbetan programari eta haren aldaerei hasiera emateko. Horretarako, ...eta kitto! Euskara Elkartek "Sardina freskue" ikusizuna ekarri zuen Eibarrera, etxeko txikienen gozamenerako. Parranda, jolasa eta dantza batzen dituen bidaia koloretsuaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren haur zein helduek. Jaialdi honekin hasi dute ikasturtea ...eta kitto!-k antolatzen dituen Berbetan mintza-praktikako programak eta haren aldaerek, Gurasoak Berbetan eta Ongietorrik. Berbetanek euskara praktikatzeko aukera eskaintzen du, astean behin ordubete, giro lasai eta informalean. Gurasoak Berbetan familia-



giroa euskalduntzeko programa da eta, mintzapraktika egiteko aukera eskaintzeaz gain, familientzat ekintza ugari antolatzen dira urtean zehar. Azkenik, Ongietorri, harrera eta elkarbizitzarako programak, astean behineko saioak eskaintzen dizkie euskarara hurbildu nahi dutenei. Izen-ematea doakoa da eta edozein momentutan egin daiteke, telefonoz deituz (943200918) edo mezua bidaliz (elkartea@etakitto.eus).

Barixakuak Jolasianeko lehenengo saioa gaur egingo da

Eta urteroko ohiturari jarraituz Txaltxa Zelai izango da ekimena hartzen lehena. 17:00etan hasita, ordubetez, jolasak eskainiko dizkie txikienei ...eta kitto!-k, euskaraz eta doan. Bigarren saioa Torrekuan egingo da, urriaren 2an, eta hirugarrena Urkizuko parkean, urriaren 7an.






EUSKALDUNAK BEHAR DITUGU

mintzapraktikako taldeetan laguntzeko
Astean behin, ordubete, giro lasai eta informalean.

EGIOZU ZURE EKARPENA EUSKARARI!

elkartea@etakitto.eus / 943200918



ASTEROIDEIAK PROIEKTUA

Zientzia dibulgazioa euskeraz

ADIMEN ARTIFIZIALAK MILURTEKO PROBLEMA BAT EBATZI DU?

Erradioaktibitatearen eta energia nuklearraren XX. mendeko azken urtean, Clay Mathematics Institute-ak Milurteko Zazpi Problema aurkeztu zituen, garai hartan irekita zeuden matematika-arazo handienetako zazpi aukeratuta. Horietako bakoitza ebazteko gai zenak milioi bat dolarreko saria eskura zezakeen.

Albiste on batekin nator, baina: garaiz zabilta oraindik sari horietako bat eskuratzeko! Ofizialki, zazpietatik bakarra ebazti baita: Poincaré-ren aierua. “Ofizialki” diot, milioi horren bila beste lehiakide sendo bat agertu delako azken asteotan: Adimen Artifiziala (AA).

Aurtengo Arrate Egunean, eibartarrok Kittotonbolan dirutza gastatzen ari ginen bitartean, OpenAI-k Milurteko Zazpi Problemetako baten ustezko ebazpena argitaratu zuen: Navier-Stokes ekuazioen existentzia eta leuntasunarena. OpenAI-k proposatutako ebazpena irailaren 8an argitaratu zen, eta Clay Mathematics Institute-ak, handik bi egunera, problema “itxuraz” ebaztita zegoela adierazi zuen, nahiz eta balidazio-prozesua oraindik amaitu gabe egon.

NAVIER-STOKES-EN EKUAZIOAK

Izenak beldur pixka bat eman dezake, baina ekuazioek deskribatzen dutena guztiz egunerokoa da: ura txorrotatik nola irteten den, airea hegazkin baten inguruan

nola mugitzen den edota Urkizuko kaleetako korrante hotzak nolakoak diren.

$$\rho \left(\frac{\partial \mathbf{v}}{\partial t} + (\mathbf{v} \cdot \nabla) \mathbf{v} \right) = -\nabla p + \mu \nabla^2 \mathbf{v} + \rho \mathbf{f} \quad (1)$$

1. irudia: Navier-Stokes-en ekuazioetako bat.

Arazoa ez zen ekuazio horiek “ebazten ez genekiela”. Fisikariak eta ingeniariak egunero erabiltzen dituzte, ordenagailuen bidez, hegazkinen aerodinamika, egurraldia edo hodietako fluxuak simulatzeko.

Galdera askoz sakonagoa zen: fluido bat egoera normal eta leun batetik abiatzen bada, bere portaera beti izango al da leuna? Edo, egoera jakin batean, zerbait kontrolik gabe haz daiteke denbora finitu batean?

Erraz ulertzeko, pentsa dezagun pilota baten kasuan, intuizioa nahiko argia baita: leunki bultzatzen badugu, leunki hasiko da mugitzen. Ez dugu espero bat-batean abiadura infinitua hartzea edo haren mugimendua inolako arrazoirik gabe bortitz bihurtzea.

Fluido batean, ordea, egoera askoz konplexuagoa da. Ez dugu objektu bakar bat mugitzen, elkarri eragiten dioten fluido-zati ugari baizik. Zati batek inguruko beste bat bultza dezakete, hark hurrengo, eta mugimendu horiek zurrunbiloak sortu eta indartu ditzakete.

ARAZOA

Goazen orduan arazoa ulertzera: irudikatu fluido baten barruan zurrunbilo txiki bat. Hiru dimentsiotan, zurrunbilo hori luzatu eta gero eta estuago bihur daiteke. Eta estutzean, bere biraketa azkartu daiteke; izotz gaineko patinatzaile batek besoak gorputzera hurbiltzean azkarrago biratzen duen antzera.



2. irudia: Irudia Zurrunbiloaren estutzea eta patinatzailearen biraketa azkartzearen konparazioa.

Baina fluidoak badu zurrunbiloen kontra egiten duen mekanismo bat ere: biskositatea. Fluido guztiak dira neurri batean biskosoak: ura ez da oso biskosoa, baina, ezta, adibidez, askoz biskosoagoa da (ikus 3. irudia). Biskositateak mugimenduaren gorabeherak leundu egiten ditu, zurrunbilo txikiak ahuldu, haien biraketa moteldu eta egitura horiek pixkanaka desegiten saiatzen da.

Beraz, Navier-Stokes ekuazioen barruan nolabaiteko borroka dago: zurrunbiloak gero eta eskala txikiagoetan kontzentratzen dituen mekanismo baten eta dena leuntzen saiatzen den biskositatearen artean.

Ia mende batez inork ez du frogatu borroka hori nork irabazten duen. Biskositatea gai al da edozein egoeratan fluidoak kontrolpean mantentzeko? Edo zurrunbilo bat hainbeste kontzentra daiteke, non haren ezaugarri matematikoren bat infinitu bihurtzen den? Hori da Milurteko Problemetako baten muina.

Azken egoerari singularitatea edo blow-up ere deitzen zaio. Eta askorik sakondu gabe, ez du ura fisikoki lehertzen denik esan nahi, eredu matematikoaren barruan magnitude bat kontrolik gabe hazten dela baizik.



3. irudia: Uraren eta eztiaren arteko biskositate-aldea; zenbat eta biskosoagoa fluido, orduan eta motelagoa da mugimendua.

ADIMEN ARTIFIZIALA

Eta hor sartzen da AA. OpenAI-ren emaitza zuzena bada, badakigu borroka horretan zer gerta daitekeen: egoera jakin batzuetan zurrunbiloak biskositateari “irabaz” diezaiokela. Frogak erakusten du hasieran guztiz leuna den fluido batean zurrunbiloa gero eta estuago eta azkarrago bihur daitekeela, biskositateak geldiarazi ezin duen arte. Une jakin batean, abiadura matematikoki infiniturantz doa.

Hala ere, milioi dolarrek ez daude oraindik inoren kontuan. Clay Mathematics Institute-ak emaitza ikusmin handiz hartu badu ere, frogak komunitate matematikoaren berrikuspina eta erakundearen balidazio-prozesua gainditu behar ditu oraindik.

Navier-Stokes-en emaitza baieztatzen bada, Poincaré-ren aieruaren ondoren ebatzitako bigarren Milurteko Problema izango litzateke. Baina, beharbada, hemen dago konturik interesgarriena: AA gizateriaren ezagutzaren mugan dagoen problema batean ikerketa matematiko berritzailea egiteko tresna bihurtzen ari dela. Hala ere, aurkikuntza ez dago polemikatik libre. Izan ere, OpenAI-ren AAK arlo horretan lanean dabiltzan matematikari batzuen estrategia erabili zuen Milurteko Problemari aurre egiteko, eta miloika euro gastatu zituen konputazioan; ikertzaileek inoiz egin ezingo luketena. Beraz, bada galdera bat airean: AA batek giza ideiak abiadura eta eskala ikaragarrian garatzen baditu, nork egin du aurkikuntza? Eta nori legokio meritua?



SD Eibar-ek etxe berria aurkeztu du: Areitioko kirol-hiria

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**



SD Eibar-en historian mugarría ezarri zuen eguna izan joan den barixakua, irailak 18. Areition (Mallabia) eraiki duen kirol-hiria aurkeztu zuen hedabideen eta erakunde ezberdinetako ordezkarien aurrean, eta tartean izan ziren Amaia Gorostiza SD Eibar-en presidentea, Imanol Pradales lehendakaria, Javier Tebas LaLiga-ko presidentea eta Rafael Louzan Espainiako Futbol Federazioaren presidentea, besteak beste.

Argazkiak eta bideoa



Barixakuan euriak atsedena eman zuen Areitioko kirol-hiria distira handiz aurkezteko. Hasteko, kazetari, argazkilaria eta kameralariak izan genuen kirol-hiri berria bertatik bertara ezagutzeko aukera. Horrela, kirol-hiriaren zehaztasunak eman zizkiguten eta momentu hartan entrenatzen ari ziren F Ligako emakumezkoen lehen taldearen eta Eibar B-ren entrenamenduak ikusi ahal izan genituen.

Jarraian, esan bezala, erakundeetako ordezkariak etorri ziren eta eurek ere bisita gidatua egin zuten, mokadutxoak jan aurretik.

Bitxikeria bezala, Gorostiza presidentea Eibar-en kamiseta oparitu zion Pradales lehendakariari, baina kamisetan akatsarekin jarri zuten bere abizena: Padrales.

11 hektarea eta 5 zelai

Kirol-hiriak klubaren egitura guztia espazio berean biltzeko helburua du. Horrela, emakumezkoen eta gizonezkoen lehen taldeak bertan entrenatzen dute; eta harrobiko taldeek, entrenatzeaz gain, bertan jokatzen dituzte etxeko partidak.

Areitioko lehen fasea 2025ean jarri zen martxan, eta orain proiektuaren garapenak klubaren jardura kirol guztia bere instalazio propioetan zentralizatzea ahalbidetzen du.

Konplexuko eraikin nagusien artean 'Errendimendu Handiko Eraikina' eta 'Tribuna Eraikina' daude. Lehenengoak hiru solairu eta 3.000 metro koadroko azalera eraikia ditu, eta lehen taldearen eguneroko jarduerarako prestatuta dago, besteak beste, gimnasioarekin, fisioterapia eta medikugunearekin, atsedeen-eremuekin eta aldagalekin. Tribuna eraikinak, berriz,



17 aldagela ditu, eta baita materiala gordetzeko espazioak eta klubaren harrobiko jarduerarekin lotutako beste gune batzuk ere.

Bost zelaietako hiru artifizialak dira, laugarrena hibridoa eta bosgarrena belar naturalekoa. Horri esker, entrenamenduak, partidak eta lan espezifikoak aldi berean egiteko aukera izango du klubak.

Kirol-jardueraz gain, proiektuak jasagarritasunari ere erreparatzen dio, aerotermia, energia fotovoltaikoa, euri-uren berrerabilpena eta ureztaketa digitalizatua bezalako sistemekin.

Abonatu eta akziodunentzako bisitak

Inaugurazioaren ondoren, SD Eibar-ek abonatuak eta akziodunak ere instalazioak ezagutzeko aukera eskaini die. Dagoeneko hasi dira bisita gidatuak egiten eta urriaren 2ra arte egin ahal izango dira, astean zehar goizez eta arratsaldean, 11:00etan eta 19:00etan.

Bisitaldiak doakoak izango dira, baina izena ematen duten pertsona guztiek SD Eibar-eko abonatu edo akziodun izan beharko dute. Izena klubaren sarreraren webgunearen bidez eman daiteke, eta Areitiora joaten direnentzat aparkalekua ere egongo da.

Informazio gehiagorako, tickets@sdeibar.com helbidera edo 943 201 831 telefonora (1. luzapena) jo daiteke.

laztik martxan dagoen arren, falta ziren lanak amaitu eta joan den barixakuan aurkeztu zuen kirol-hiri berria SD Eibar-ek



Orientazio Zerbitzuaren ordutegia zuzenduta

E.B. Joan den asteko aldzikarian Eibar Kirolaren zerbitzuen inguruan kaleratu genuen informazioaren barruan, horietako baten berri ez genuen eman. Ibilixan ekimenaren lehen hitzorduak urriaren 9an eta 23an, azaroaren 6an eta 20an eta abenduaren 4an eta 18an izango direla jakinarazi genuen, eta hori horrela da, baina Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzua (JFOZ) noiz emango den azaltzea falta izan zitzaigun. Kasu horretan, ordutegia martitzenetan 11:00etatik 17:00etara, eta barixakuetan 9:30etik 13:30era izango da.

Informazio gehiago nahi dute-nek mogidu@eibarkirola.eus helbidera idatz dezakete edo 688 724 174 telefono zenbakira deitu.

EKD Trail Taldea egunean aurkeztuko dute

E.B. Urriaren 1ean, eguna, 19:00etan, Deporren, aurkeztuko dute EKD Trail Taldea. Eibarko Klub Deportiboak Kalamua Korrikalari Taldearen babesarekin bultzatu du ekimena, eta mendia, korrika egitea eta komunitatea uztartzea du helburu. “Helburua ez da lehia, bakarrik. Gehiago bilatzen da mendian korrika dabilen jendea batzea eta kirol honi ikusgarritasuna ematea”, dioskue.

Taldea ez da eliteko korrikalarientzat bakarrik sortu, “hasiberrientzat, mendizaleentzat eta korrika egitea gustuko edonorentzat” baizik.

Horrela, Eibar eta inguruko mendietan ibiltzeko aukera emango dute eta, horretarako, maila guztietarako irteerak antolatuko dituzte. Giro ona eta talde izaera sortzea da euren asmoa.



Trabuko Bidearen 6. etapa egin eta gero, Redesera joango dira Deporrekoak

E.B. Klub Deportiboko mendizaleek ez dute geldirik egoteko asmorik. Joan den zapatuan, irailak 19, Trabuko Bidearen 6. etapa egin zuten, Etxauritik Asiainera, giro ederrak lagunduta. Eta oraingoan, urriaren 10etik 12ra, hiru eguneko irteera egingo dute Redeseko Parke Naturalera, Asturiasko erdi-ekialdean dagoen naturagune babestura. Hiru egunetan, Retriñón (1.862 m), La Forcada (1.556 m) eta Cuyargayos (1.391 m) mendietara igotzeko aukera izango dute.

Hiru eguneko ibilbidea

Urriaren 10ean, Felechosa herritik abiatuko dira, PR-AS-30 bidea jarraituz. Valentzia lepotik igaro eta Retriñón mendira igoko dira; ondoren, Muezca eta Arku lepoetatik jaitsiko dituzte, Mayás de Xulio txaboletatik igarota, Caleao herrira iristeko. Egun horretako ibilbidea zortzi ordu ingurukoa izango da, eta 1.200 metro inguruko desnibel positiboa izango du.

Bigarren egunean, urriaren 11n, Acebal auzotik abiatuko dira. Foces de Raigosu arroila zeharkatu eta Los Collados lepotik La Forca-

da tontorrera igoko dira. Jaitsiera beste arantetik egingo dute, La Texera lepotik eta Ruta del Alba bidetik, Soto de Agues herriraino. Egun horretarako ere zortzi ordu inguruko iraupena eta 1.100 metro inguruko desnibel positiboa aurreikusi dituzte.

Azken egunean, urriaren 12an, Soto de Aguesetik abiatuko dira Cuyargayos mendira igotzeko. PR-AS 63 bidea jarraituko dute ibilbide zirkularrean, abiapuntura itzuli aurretik. Bosgarren eta azken eguneko ibilbideak bost-sei ordu inguru iraungo du, eta 1.000 metro inguruko desnibela izango du.

Parte hartzeko ezinbestekoa izango da federatuta egotea. Prezioaren barruan bidaia, gau bakoitzeko ostaltua, afaria eta gosaria sartuko dira; bazkariak, ordea, norberak ordaindu beharko ditu. Urriaren 10ean, gainera, ez dute gosaltzeko geldialdirik egingo bidaian. Mendizaleek Soto de Caso herriko Casin Hostel aterpetxean hartuko dute ostatu.

Izen-ematea atzo ireki zen eta www.deporeibar.com webgunean aurkitu dezakezen formularioaren bidez egin daiteke.

Eibarko PROFESIO LIBERALAK

ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE

Fermin Calbeton 4, 3 D lokala

Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70

abogada@martavalera.es

AHOLKULARIAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

www.gaurve.com

consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

www.gestilan.es

gestilan@gestilan.es

BITARTEKARITZA

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR

Estreinatu zure **ETXEA OPARI BATEKIN**

Zure etxebizitza erostearekin batera,

El Corte Ingleseko

► **3.000€-ko** * opari-txartela

* Kontuakatu legeak aurrerak. Promozio hau etxebizitza berritarako soilik da baliozkoa.

Etxebizitza berriak **EIBARREN**

Gourmet aretoa • Gimnasio hornitua • Garajea • Trastelekua

Aprobetxatu **ESKAINITZA MUGATU**
hau amaitu baino lehen

900 11 00 22 • neinorhomes.com

Pello Osoro 3. Ciudad de Santander triatloian

E.B. Ciudad de Santander triatloia jokatu zen asteburuan eta, gizonen distantzia erdiko proban, Pello Osoro podiumera igo zen. Julen Anduezak irabazi zuen proba, Alejandro Rodriguez Rilo izan bigarren eta atleta eibartarra hirugarren postuan helmugaratu zen. “Orokorrean, lasterketa ona, baina gauzak fintzen joan behar gara”, adierazi zuen sare sozialetan.

Izan ere, Osorok azken probetan izandako sentsazioak hobetu nahi zituen eta, itxura denez, helburu hori lortu zuen. Gainera, lehen postua ez zuen oso urruti izan, minutu eta hamasei segundora hain zuzen ere. Ohikoa denez, eibartarrak bizikleta gainean erakutsi zuen nagusitasun osoa, baina antxintxiketal-dian aurrea hartu zioten.

Emakumezkoetan, Helene Alberdi izan zen irabazle. Maria Vilasek zortzi minutuko aldea ateratzen zion korrikaldia hasi baino lehen, baina zumaiairrak demaseko erakustaldia egin eta aurrea hartu zion, helmugan minutu eta erdi baino gehiagoko aldea ateraz.



Julen Gaston ermuarra nagusitu zen zapatuan Hiru Txikiak lasterketan

E.B. Eguraldi ezin hobearekin ospatu zen zapatuan, irailak 19, Hiru Txikiak mendi-lasterketa. Ehundaka lagunek hartu zuten parte urteragero eta ospe gehiago hartzen ari den lasterketan, eta Ermuko eta Eibarko korrikalariak izan ziren protagonista nagusiak.

IBILBIDE LUZEAN, 44 kilometrokoa, Julen Gaston Gorritxategi ermuarra izan zen irabazlea 3:55:06 denborarekin eta jarraian hiru eibartar helmugaratu ziren: Unai Fernandez Maguregi (4:03:55), Mikel Arriola Muniozguren (4:09:40) eta Juan Zubiaurre Atxa (4:11:24).

Euren atzetik Juan Basterra Echeverria (4:16:33) leioarra iritsi zen, eta seigarren postuan beste eibartar bat: Iker Eizagirre Agirregomezkorta (4:18:21).

Emakumeei dagokienez, Anna Fernandez Bonel kataluniarra izan zen azkarrena (4:38:47). Elorrioko Zutoia Odriozola Urkiza (4:55:44) izan zen bigarren eta Ermuko

Sandra Losada Cid hirugarren (5:08:32). Lehen eibartarra Eider Sobron Coteron izan zen (5:16:48).

IBILBIDE MOTZA ETA POLEMIKA

Hiru Txikiak lasterketan 27 kilometroko ibilbidea egiteko aukera ere egon zen eta, hor ere, ermuarrak eta eibartarrak izan ziren nagusi. Azkarrena Andoni Osorio Garcia (2:39:07) ermuarra izan zen, bigarren Oier Beitia Iriondo (2:40:35) herrikidea helmugaratu zen eta hirugarren Xabier Adot Zubiaurre (2:40:38) eibartarra.

Lasterketa festa giroan ospatu zen nagusiki, baina hainbat protesta egon ziren Lorea Totorika Ermuko mendi-korrikalariak salatutako egoerarengatik.



Informazio
gehiagorako

“Benito Lertxundiren kantua Orioko leku konkretuetara eramatea da ideia”

ENERITZ IBARRA • Sormen Bizia bekaren irabazlea



Eneritz Ibarra eibartarrak Orioko Udalaren lehen Sormen Bizia beka jaso du «Benito, herriaren kantua» proiektua garatzeko. Benito Lertxundiren kantua eta gogoetak Orioko hainbat txokotara eramango dituen ibilbidea diseinatu nahi du. Oraingoz, ideia garatzeko eta proiektuari forma emateko fasean dago, eta

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Benito Lertxundiren lana abiapuntu hartuta, euskal kulturaren ondare immaterialari leku fisikoa ematea da Ibarrek sortutako proiektuaren helburua. Kantuak eta gogoetak Orioko espazioetara eramanez, herria beste begirada batetik ezagutzeko eta belaunaldi berriei zein kanpotik datozen bisitariei euskal kulturara hurbiltzeko ibilbidea proposatu du. Ideia garatzeko beka jaso berri du, eta datozen hilabeteetan diseinatuko du proiektuaren mapa.

Hasieran esan zenuen gaia ez zela zuretzat. Zer gertatu zen gero proiektuari heltzeko?

Orion beti egon da testu eta irudi lehiaketa bat, eta formatu horri buelta bat ematen hasi ziren, lehiaketa eraldatu eta sormen-prozesu batean bihurtzeko. Aurreko ikasturtean, Sormen Bizian Lab sorkuntza prozesua abiatu zen, idazketa tailerra Nerea Loiolarekin eta ilustrazioa nirekin. Prozesu hori guztia Sormen Bizia beka honekin osatu zen. Nik banekien beka hori egongo zela eta pentsatu nuen: «Agian hartuko dut parte edo

ondo egon daiteke». Baina deialdia atera zutenean, gaia Benito Lertxundi zela ikusi nuen. Eta orduan, bua! Oso handia iruditu zitzaidan. Benito pertsona handia da niretzat; egiten dituen gauzak oso ondo zaindu ditu, kalitate handia eskaini digu, asko egin du, jende askoren bizitza ukitu du eta herria egin du. Euskal Herrian bada nor. Orduan, horrek atzeraka egin zidan, haunditxo gelditzen zitzaidan gaia.

Hala ere, bekaren ideia hor geratu zitzaidan buruan. Halako batean ibilbidearen ideia hau etorri zitzaidan eta bere lanaren transmisiorako balio zezakeen zer-bait proposatzera ausartu nintzen.

Zerk eman zizun lan horri heltzeko bultzada?

Gehienbat, nik neuk egingarri ikusten nuen ideia batera heltzeak. Ez nintzen sartuko Benitoren kantuetan edo Benitori buruzko gogoeta batean. Baina ikusi nuenean egin nezakeena zela haren berbak edo gogoetak, Benitoren kantua, hartu eta Orioko espazio konkretuetan kokatutako ibilbide bat planteatzea, pentsatu nuen hori egin nezakeela. Eta ausartu nintzen ideia garatzera.



Eneritz Ibarra Sormen Bizia bekaren irabazlea. GORKARUBIO



Eneritz Ibarraren 'Begi hütsez ezin ikusi' lanaren pasarte bat.

Zer nahi duzu sortu «Benito, herriaren kantua» proiektuarekin? Zer aurkituko du ibilbidea egiten duenak?

Ibilbide bat izatea da ideia, oinarrian euskal kulturaren ondare immaterial hori izango duena eta leku fisikoa bat emango diona. Denok entzun ditugun kantu horiek Orioko leku konkretu batzuetara eramatea eta Oriotik buelta bat eman eta abesti edo gogoeta horiek entzun ahal izatea da helburua.

Ibilbideak euskararen, Euskal Herriaren, Orioren inguruan... hausnartzeko ere balioko du. Iraganean eta orain gauzak modu desberdinetan ikusi ditugula ulertzeko aukera emango du. Eta, azkenean, ibilian-ibilian, abesti horiek entzuten, bizipenak mugituko dira. Benitoren kantuek entzuten ditugunean, burua atzera joaten zaigu, eta bizipen batekin, egoera batekin, garai batekin edo bizitzako momentu batekin konektatzen dugu. Beraz, emozionalki ukituko gaituen ibilbidea izango da.

Pertsonala izango da, baina baita kolektiboa ere. Izan ere, bakarka edo taldean egin daiteke, eta transmisiorako ere balio dezake: belaunaldi berriei edo

“Ez nintzen sartuko Benitoren kantuetan edo Benitori buruzko gogoeta batean; haren berbak eta kantuek Orioko espazio konkretuetan kokatutako ibilbide bat planteatu nahi nuen”

“Benito Lertxundi Euskal Herrian bada nor”

turismoa egitera datozeinei herri honen hizkuntza eta egoera ulertzeko bidea emateko.

Benitoren lana oso zabala da. Nondik hasi zara ikertzen?

Pixka bat pikoteoan egin dut. Alde batetik pixka bat hartzen, gero bestetik... Bere liburuak irakurtzen hasi naiz, kantagintzara jo dut, sarean dauden elkarrizketa batzuk ikusi ditut...

Beraz, proiektua lantzeko fasean zaude, eta, ostean, baiezkoa jasoz gero, kaleetan gauzatuko da.

Hori da. Noski, gero proiektuak beste inbertsio bat eskatuko luke. Oraingo beka ideia garatzeko da, ideia horren mapa egiteko, nola egin daitekeen pentsatzeko eta, beno, espazioak mapa horretan kokatzeko, kontuak, gogoetak, eta abar.

Baina, noski, bekaldia amaitzeak ez du esan nahi proiektua aurrera joango denik. Hori agian datorren urtean erabakiko da, eta aurrerago sortuko da proiektua.

Poiektua Orion ikustea nahiko zenuke?

Ba kristona izango litzateke! Orain Orion bizi naiz eta herri-ekarpena egitea izango litzateke niretzat.

Kalean irudikatu duzu? Nola?



Muskerraren Bidea-Asteasu-Elizemendi. TOLOSALDEA.EUS

Asteasuko «Muskerraren bidea» hartu dut inspirazio gisa. Bertan, Obaba, Bernardo Atxaga eta Asteasuren historia nahasten dira, eta oso modu politean dago eginda. Uste dut sortzen dugun ezer ez dela berria, loturak egiten ditugula, alegia. Beraz, bide horretan badu oinarri bat ere. Oriotik paseoa zoazela bidaia bat egitea litzateke ideia. Oraindik formatu asko daude Udalarekin erabakitzeke: ea dena diseinuaren bidez egingo den, QRrik izango den ala ez, aplikazio edo audiogidarik egongo den eta abar. Ikusiko da zertan amaitzen duen. Horri guztiari forma emateko denbora dut orain.

Sortzaile gisa, zerk eman diezaioke ilustrazioak Benitoren musikaren transmisioari?

“Orain buruan daukadan Benitotik beste bat topatuko dudala pentsatzen dut”

Ilustratzaile gisa ari naiz azken urteetan, baina beste gauza pila bat ere egin izan ditut. Beraz, hau ez dut ehuneko ehunean ilustrazio-lan bezala ikusten. Ez dut uste beharrik duenik ilustraziorako, eta ez dut uste ilustrazioaren bidez inpaktu bisual handia izango lukeenik. Ez dut ikusten panel handirik, esaterako. Agian ikur bat sortu liteke, eta ikur horrek eramango gaitu. Mendian bezala, markatxo batek gidatuta.

Zer espero duzu aurkitzea prozesu honetan?

Sorpresak beti egoten dira. Horrelako prozesuetan sartzen zarenean, beti dago harrituko zaituen zerbait. Pentsatzen dut orain buruan daukadan Benitotik – azkenean, etxean jaso dudana Benito bat – beste bat topatuko dudala, ibilbide sakonagoa izango duena... Azkenean, liburutetan, kantuetan, elkarrizketetan eta detaileetan erreparatuta, eta beste begirada batekin ezberdina izango dena. Txikitik «Loretzoxa» kanta entzuten zuen Eneritz edo oraingoa berdina ez den bezala. Prozesuan, Benitorekin elkartzeko gustatuko litzaidake, eta elkarrizketa hori gauzatzen baldin bada, hor ere egongo dira perla politikak.



Banatu dituzte Izengabeak musika lehiaketako sariak

S.H. Izengabeak Debabarreneko musika taldeen lehiaketak era guztietako erritmoekin bete zuen Untzaga aurreko asteburuan, aukeratutako taldeek barixakuan eta zapatuan eman zituzten kontzertuekin. Emanaldiak amaitu eta, jarraian, sariak banatu zizkieten edizio honetako irabazleei: lehen saria (2000 euro eta 50 estudio ordu) Mise en Abyme-k eraman du; bigarrena (1000 euro eta 50 estudio ordu) Judash taldeak; eta hirugarrena Rythmachin-ek; euskarazko gai onenaren saria (500 euro), berriz, Udaz&The Hollow Nights taldearentzat izan da.



Debabarreneko Orfeoiak Zamoran abestuko du

S.H. Debabarreneko Orfeoiaren (DBOR) X. urteurreneko ospakizunen barruan, taldeak Zamorara bidaia egingo du, bertan bi kontzertu eskainitzeko. Lehenena urriaren 10ean izango da, Zamorako San Cipriano elizan, hango Diputazioak antolatuta hirian egingo den kontzertu-zikloaren barruan. Bigarren kontzertua, berriz, urriaren 11n izango da, Toro (Zamora) hiriko Santa Maria la Mayor kolegiatan. Handik bueltan, DBORek hainbat hitzordu izango ditu oraindik, urteurreneko ospakizunekin jarraitzeko.



Domekan hasiko dira sanmigelak Aginaga auzoan

S.H. Aurtren ere San Miguel jaiak ospatuko dituzte Aginaga auzokoek, hango jai-batzordeak antolatu duen programazioarekin. Domekan (irailak 27), Meza Nagusia egingo dute, 11:00etan, San Andres parrokiako abesbatzak lagunduta. Eguerdian, 12:00etan, hamarretakoa eta umeendako jolasak izango dira; 14:30ean, paella-jana egingo dute; eta 17:00etatik 20:00etara, berriz, erromeria egongo da, eMePebo5t taldearekin (argazkian).

Martitzenean, San Miguel egunean, mezarekin hasiko dira ospakizunak, 11:00etan. Ondoren, Usartza Txistulari Taldearen emanaldia hasiko da. Jarraian, 12:00etan, izango dira hamarretakoa eta umeendako jolasak; eta 14:00etan hasiko da lagunarteko bazkaria, Usartza Txistulari Taldekoek lagunduta. Bazkalorduan bertan, jai-batzordekoek zozketa egingo dute. Saridunak jeneroz betetako karretilla ederra, 420 eurotan baloratutakoa, eramango du.

Bertso-saio musikatua egingo da urriaren 2an Errebal Plazan

S.H. Hankamotxak bertso-eskolak Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatuta, bertso-saio musikatua egingo da Errebal Plazan urriaren 2an, barixakuan, 22:00etatik aurrera. Alaia Martin Etxebeste, Aissa Intxausti Aburruza, Beñat Gaztelumendi Arandia eta Joanes Illarregi Marzoi bertsolariak arituko dira, Araitx Bizkai Villanueva eta Oihana Landa Ibarra musikariek lagunduta. Gai-jartzailea Maite Berriozabal Berribeitia izango da.





‘Azokatik Mahaira: Sukaldean Behin’ tailerra emango dute bihar Errebalen

S.H. Egun bakarrean, bi ordutan, aste osorako janaria prestatzea. Horixe da *Azokatik Mahaira: Sukaldean Behin* tailerraren proposamena. Gipuzkoako Azoken Sareko lantaldeak eta Eibarko Udalak elkarlanean antolatu dute, eta bihar (irailak 26, zapatua) egingo da, Errebalgo Merkatu Plazan, 11:00etatik aurrera.

Tailerraren helburua herritarrek azokara hurbiltzea, eta sasoiko eta gertuko elikagaiekin eguneroko otorduak modu erraz, osasungarri eta iraunkorrean antolatzeko tresnak eskaintzea da. Horretarako, sukaldean denbora optimizatzen eta dieta orekatua prestatzen ikasiko dute parte-hartzaileek, bertako eta sasoiko produktuak erabilia.

Egunerokoan prestatzeko moduko errezetak

Anne Otegi sukaldariak eta Aitziber Aizpuru nutrizionistak gidatuko dute saioa. Sukaldaritzaren eta elikaduraren ikuspegiak uztartuta, egunerokoan aplikatzeko moduko aholkuak eta errezetak emango dituzte. Gainera, saioan prestatutakoa dastatzeko aukera izango da.

Tailerrera joateko ez da aurrez izena eman behar; bertaratzea nahikoa izango da. Parte-hartzaileek, halaber, saioan prestatutako errezetak eta nutrizio aholkuak jasoko dituzte.

Ekimenaren bidez, tokiko ekoizleen lana eta inguruko produktuak ezagutarazi nahi dituzte, baita kontsumo arduratsua eta elikadura-ohitura osasungarriak sustatu ere.



Alex Ayresen eskutik hasiko da Komedia Fest jaialdia

S.H. Irailaren 26tik azaroaren 22ra umorezko bederatzitik ikuskizun eskainiko dira, Coliseo antzokian eta Uni Eibar-Ermuan, Komedia Fest jaialdiaren bigarren edizioan. Bihar (zapatua, irailak 26) hasiko da jaialdia, Alex Ayresen *Ardillas en mi cabeza* ikuskizunarekin. 20:30ean izango da, Uni Eibar-Ermuan. Emanaldi horretan, gainera, *Josie Asquerosi* pertsonaiagatik ezaguna den Sandra Floresek, jaialdiko lehen teloneoak, irekiko du saioa.

Egitarauak askotariko proposamenak jasotzen ditu. Programa eta ikuskizunetarako sarrerak Komedia Fest-en webgunean daude eskuragai.

Eibarren jokatu da Bertsolari Txapelketaren finalaurrekoetako bat

S.H. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finalaurrekoetako bat Eibarren jokatu da, urriaren 31n. Ipurua kiroldegian izango da saioa, 17:00etan, eta Alaia Martin, Nerea Ibarzabal eta Miren Artetxe arituko dira bertan. Eibarko finalaurrekoan kantatuko duten gainerako hiru bertsolarien izenak, berriz, lehen fasea amaitutakoan jakingo dira. Sarrerak 16 euro balio du Bertsozale Elkarteko bazkideentzat 22 euro bazkide ez direnentzat, eta 12 euro 6 eta 18 urte arteko gazteentzat. Bertsosarrerak, eus atarian eros daitezke



ERRAZAGOA

					3	4		
				2	4		6	1
5								9
4					9			
6					2		1	
						4		6 3
			6	7		9		4
2	8				1	5		7
	5	7			2			6

SUDOKUA



9	1	3	2	8	7	4	5	6
7	6	5	1	3	9	7	8	2
4	8	6	5	7	7	9	3	1
3	9	6	4	1	8	5	2	7
8	7	1	7	1	1	5	3	6
5	4	2	2	6	6	3	8	1
6	3	7	2	2	1	1	2	7
1	9	6	9	4	5	6	7	3
2	4	5	2	7	3	6	1	8

6	7	3	7	6	9	9	8	1	2
2	9	8	6	1	5	7	3	4	5
4	4	1	1	1	1	1	1	1	1
8	6	2	9	3	1	4	5	7	8
5	1	1	6	7	2	2	3	9	8
7	3	9	8	5	4	6	2	1	1
4	1	7	2	3	8	5	3	7	9
3	5	3	8	2	9	7	1	6	6
9	4	7	1	4	1	7	6	5	3

ZAILAGOA

	8				1			6
		4				8		
		7						
1				5				
	9					4		
		5			9			
	6			8				
		3			2			
	1				7			9

LABIRINTOA



Irailak 25 / Urriak 1

BARIXAKUA 25

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Bi eta zortzi urte bitarteko umeentzako doako egitasmoa, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Txaltxa Zelai.

IPURUAKO JAIK

17:00 Txokolate-jana eta Neledantza taldearen emanaldia. **18:30** Trikipoteoa, auzoan (Jazinto Olabe, Jubiletxea, Ipuruako dorreak, Argatxa eta J. A. Mogel). **20:30** Txupinazoa. **21:00/00:30** Aittu erromeria. **01:00/02:30** DJ IN-DI. J. A. Mogel.

GRADUAZIO-EKITALDIA

18:00 Gipuzkoako Inge-niaritza Eskolako Graduazio Ekitaldia. Eibarko Hezkuntza Esparruko Areto Nagusia.

ZAPATUA 26

AZOKATIK MAHAIRA

11:00/12:00 Gipuzkoako Azoken Sareak antolatuta, "Azokatik Mahaira: Sukaldean Behin" sukaldaritza tailerra. Errebalgo Merkatu Plaza.

TXAKURRAK URETARA!

11:00/18:00 Txakurrak Uretara! ekimena. Sarrera dohainik. Ipuruako udal igerilekua.

IPURUAKO JAIK

11:00: Salda eta txorizoa banatuko dituzte. **11:30/13:30** Herri kirolak. **15:00/18:00** Auzokoen bazkaria. Aldi berean, **17:00etatik 19:30era**, umeentzako tailerrak eta bazkal osteko bingoa egingo dira. **21:00/22:00** Judash taldearen kontzertua.

22:30/00:30 Iruko erromeria. **01:00/02:30** DJ Miren. J. A. Mogel.

MANIFESTAZIOA

13:00 "Israel genozida, Palestina askatu" manifestazioa, Eibar Palestinarekin Herri Ekimenak antolatuta. Untzaga.

URTEURREN-FESTA

19:00 Portalearen 30. urteurrena ospatzeko jaia. Dantzak eta musika, Kezka eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren eskutik. Ondoren, txokolate-jana. Bista Eder kalea.

BIEN APARECIDA AMA BIRJINAREN JAIA

19:00 Kantabriako produktuen dastaketa. Ipuruako bolatokia eta Jardiñetako Centro Montañas.

KOMEDIA FEST

20:30 Alex Ayresen "Ardillas en mi cabeza" ikuskizuna. 17 euro. UNI Eibar-Ermua.

DOMEKA 27

BIZIKLETA EGUNA

09:30 Zikloturista eta mountain-bike zaleen irteera, Untzagatik. **10:00** Goizean egingo diren ekintzetan parte hartzeko, haur eta gaztetxoentzako izen-ematea (udaletxeko arkupeetan). **11:00** Haur eta gaztetxoek martxa abiatuko da, Untzagatik. **11:30** Herri-barruko zirkuituak. Amaieran, helduentzat salda eta txorizoa prestatuko dituzte udaletxeko arkupeetan, eta 0-12 urte bitarteko parte-hartzaileentzat opariak zozketatu eta banatuko dituzte. Antolatzailea: Eibarko Txirrindulari Elkartea.

IPURUAKO JAIK

10:30 Toka eta igel-toka jokoak. Ipuruako jubiletxea. **11:00** Tailerrak, Jazinto Olaben. **12:00** Kaxaren Dantza emanaldia; bermuta eta pintxoak, Ainhua Arroitzak girotuta, Jazinto Olaben; eta meza, San Pio X.a elizan. **13:00** VirginiaxLos Machines eta Harriartian-en musika emanaldia, Jazinto Olaben.

AGINAGAKO JAIK

11:00 Meza Nagusia, San Andres parrokiako abesbatzaren parte-hartzearekin. **12:00** Hamarretakoa eta umeendako jolasak. **14:30** Paella-jan herrikoia. **17:00/20:00** Erromeria, MP5 taldeak alaituta. Aginaga auzoa.

EKITALDI POLITIKOA

12:30 "Loturak askatzera", Sortuk antolatutako ekitaldia, Txiki eta Otaegiren fusilamenduen 51. urteurrenean. Gudarien enparantza (Toribio Etxebarria kalea). **14:30** Herri-bazkaria eta bazkaloste musikatua. Triku taberna.

TAILERRA

15:00/19:00 "Seedsigner. Hartu zure bitcoinen kontrola" tailer irekia. Ipuruako Merkatu Plaza.

ASTELEHENA 28

PORTALEA 30 URTE

19:00 "Nazioarteko egoera, bizikidetzak baketsua, kultur espazioak" hitzaldia, Jesus Nuñez Villaverde nazioarteko harremanetako irakaslearen eskutik. Gaztelan. Portalea (areto nagusia).

MARTITZENA 29

AGINAGAKO JAIK

11:00 Meza Nagusia, San Miguel eguna ospatzeko. Ondoren, Usartza Txistulari Taldearen emanaldia. **12:00** Hamarretakoa eta umeendako jolasak. **14:00** Lagunarteko bazkaria, Usartza Txistulari Taldearekin. **14:00** Jai-batzordearen zozketa (saria jeneroz betetako karretilla eder bat da, 420 eurotan baloratuta). Aginaga auzoa.

EGUAZTENA 30

HITZALDIA

11:00/12:00 "Bizitzaz haratago zaintzea", doluari buruzko hitzaldia (gaztelan). Hizlaria: Raquel Toca Martinez, familia eta komunitate erizaintzako espezialista. Sarrera libre (gehienezko edukiera: 30 pertsona). Ipurua adinekoen gizarte zentroa.

EGUENA 1

PORTALEA 30 URTE

19:00 "Kultura guneak, kontsentsu guneak" hitzaldia, Jon Sarasua bertsolari eta Mondragon Unibertsitateko irakaslearen eskutik. Euskaraz. Portalea

ERAKUSKETAK

Irailaren 25etik urriaren 11ra

Arrate Kultur Elkarteko bazkideen erakusketa. Topaleku.

Urriaren 25era arte
"Portalea, 30 urte" atzera begirako erakusketa. Portalea (erakusketa aretoa).

ZINEA COLISEO



“Tiempo de victoria”
THRILLER. DRAMA
2026/Erresuma Batua/101’
Zuzendaria: Anthony Marasi
Aktoreak: Andrew Scott,
Brendan Fraser, Kerry Condon
II. Mundu Gerra. Benetako
gertaeretan oinarritua

- 1 ARETOA**
- **26an:** 17:00, 19:45, 22:30
 - **27an:** 17:00, 20:00
 - **28an:** 19:30



“Prácticamente magia 2”
FANTASIAZKOA.
2026/AEB/130’
Zuzendaria: Susanne Bier
Aktoreak: Sandra Bullock,
Nicole Kidman, Joey King
Sorginkeria. Magia. Sekuela

- 2 ARETOA**
- **26an:** 19:45, 22:30
 - **27an:** 20:00
 - **28an:** 19:30



“La bola negra”
DRAMA. ERROMANTZEA
2026/Espainia/155’
Zuzendaria: Javier Calvo, Javier
Ambrossi
Aktoreak: Guitarricadelafuente,
Miguel Bernardeau, Carlos
González, Penélope Cruz
Homosexualitatea

- 2 ARETOA**
- **26an:** 16:00
 - **27an:** 16:30
- ANTZOKIA**
- **26an:** 19:15, 22:30
 - **27an:** 20:00
 - **28an:** 19:30



**“La Patrulla Canina.
La Dino Película ”**
ABENTURAK. KOMEDIA
2026/AEB/88’
Zuzendaria: Cal Brunker
Sekuela. Eskolaurrea.
Txakurrak/Otsoak

- ANTZOKIA**
- **26an:** 17:00
 - **27an:** 17:00





**Arantza
Peña de Garicano Etxaniz**

2026/08/04

“Gure ipar-Izarra,
gure urratsak bideratu
dituen argia izan eta
izango zara, AMATXO”

- ETXEOAK -





**Valentina Iriondo
Mancisidor**

2026/09/21

“Eskerrik asko,
ama/amama, gure artean
egoteagatik”

Mila esker, bihotzez,
une latz hauetan gurekin egon
zareten guztioi.

- ETXEOAK -





www.etakitto.eus
zorion-agurak



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: **FORMULARIO** bat betetzea **ETAKITTO.EUS** webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezke), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **LUR!**
Hillan 17xan 3 urte
bete zenduaz
eta. Askoi maite
zaiztugu, pototo!



Zorionak **NOA
LOPEZ!** Irailaren
26xan 13 urte
beteko dozuz eta.
Musu asko aitxita,
amama, Luka,
Danel eta Anerren
partez.



Zorionak **MALEN!**
Domekan 11 urte
bete zenduaz.
Musu haundi bat
famelixaren partez.



Zorionak **JOL!**
Astelehenian 5 urte
bete zenduaz
eta. Askoi
maite zaiztugu,
txapeldun! Mila
musu etxekuen
partez.



Zorionak **KOIKILLI** eta **IRAI!**
Besarkada estu bat famelixa
eta lagun guztixen partez.



Zorionak **JONE, IRUNE** eta
IRATI! Ondo ospatu zuen 25.
urteurrena. Jarraitu beti gazte
izaten. Gora kopak!! :)



Zorionak aitatz **DAVID!**,
etxeko txikixenaren partez! Ta
musu haundi bana famelixa
guztixaren partez.



Zorionak amama **ROSA!**
Segi holako alai eta irrifartsu!
Musu haundi bat famelixa
guztixaren partez.



Zorionak **ELENE!**
Domekan 12 urte
betetzen dozuz
eta. Musu haundi
handi bat, famelixa
guztixaren eta,
batez be, Juneren
partez.



Zorionak **JARE!**
Domekan 9 urte
betetzen dozuz
eta. Besarkada eta
patxo potolo bat
famelixa guztixa-
ren partez. Askoi
maite zaiztugu.



Zorionak **BIDANE!**
Irailaren 27xan 4
urte beteko dozuz
eta. Patxo haundi
bat danon partez.
Askoi maite zaiztugu.



Zorionak **MARKEL**
maitia! 10 urte!
Besarkada bana
etxekuen eta,
batez be, Keparen
partez.

Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- BENIDORM. Neguko denboraldirako etxebizitza alokatzten da. Gutxienez 15 eguneko egonaldiak. Hondartzatik eta erdigunetik gertu. Igerilekua. Garajea barne. Aukera ezberdinak aztertzen dira. Informazio gehiago: 667244733.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Garaje partzela alokagai Urkizu Pasealekua, 9 kalean. Deitu 609453946

4. LANA

4.2. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako, Baita asteburuetan ere. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 641317864.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, ospitaletan, asteburuetan, gauzez edota interna. 631425686
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka edo interna moduan. etxe zein elkarte gastronomikoetan. Esperientzia eta erreferentziekin. 613314850.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak, umeak edota maskotak zaintzeko. Baita garbiketa lanetarako. 611 28 89 69.
- Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zientzietako Graduko ikaslea eskaintzen da entrenatzaile pertsonal gisa lan egiteko. Baita banatzaile edota zerbitzari bezala lan egiteko. 653752062.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Baita ostalaritza eta garbiketa lanetarako ere. 632868633.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako, orduka edota interna bezala. 612540008.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Edozein momentutan hasteko prest 654154301.
- Emakumea eskaintzen da nagusia edo haurrak zaintzeko. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko (tituluarekin), 09:00etatik 17:00etara. 633597550.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak etxebizitzatan zaintzeko, baita garbiketa lanetarako ere, etxe zein elkarte gastronomikoetan. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 602051567.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita garbiketa lanetarako. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 747495356.
- Neska arduratsua eta euskalduna eskaintzen da arratsaldetan umeak zaintzeko. 688674765.
- Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Esperientzia eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 642578943,

4.2. Langile bila

- Bekeko tabernan zerbitzari bila gabilta. Gurekin lan egin nahi badozu, idatzi bekekoebizar24@gmail.com helbidera.
- Eibarko taberna batean esperientziadun zerbitzari euskaldun bila gabilta. Lanaldi osoa eskaintzen dugu. 617667283.
- Urkiko Jubilatuen Elkarteak taberna kudeatuko duen pertsona bat behar dugu; autonomia izan behar du. Harremanetarako telefonoa: 688677743.
- Estetizista eta fisioterapeuta behar da Eibarko ileapaindegiri baterako. Lan giro bikaina. 943208125,
- Gasolindegiri batean oporraldi-tarako lanaldi osoko saltzailea behar da. Interesatuak bidali curriculumak acitain@gmail.com helbidera.
- Langilea behar da gasolindegiri batean. 8 orduko kontratua, igandeetan bakarrik lan egiteko. Interesatuak bidali curriculumak acitain@gmail.com helbidera.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Marrazketa eta pintura klaseak ematen dira, haur zein helduentzat. Goizez eta arratsalde. 646238458.
- Euskara irakasle bat behar da DBH 3ko ikasle bati, eskola partikularrek emateko. 65373 5874, 13:00etatik aurrera deitu.
- Neska euskaldunak ingelezko klase partikularrek ematen ditu. C1 tituluarekin. 615701749.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrek ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrek ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitateak prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Kabi-oheta salgai, koltxoiak eta guzti. Ia berriak, erabilera oso gutxiarekin. 250 euro. 690655455.

6.4. Bestelakoak

- Txakurkume mestizoak adopzio arduratsuan ematen dira. Klaus: 603434858.
- Txakurkumeentzako artikulak gustura hartuko genituzke. Klaus: 603434858.

OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ESTETIKOA



abontza
clínica estética

MEDIKUNTZA ESTÉTICA
Dermatología estética
Autopigmentación
Botox
KIRURGIA ESTÉTICA
Lipoaspiración y liposucción
Borrado de cicatrices
Cirugía rítmica



Egiguren, 6 - Beheia 943 20 60 44
www.clinica-abontza.com

ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Medika Estetikoa
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak

Arragueta 2bis B, Entrepanta A
625 003 251 info@draanesvesga.com
WWW.DRAANESVESGA.COM



OKULISTAK



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmología Clínica

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 204/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



PSIKOLOGOAK



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSICOLOGIA | PSIKOTERAPIA

Haur, nerabe eta helduenganako
arreta psikologikoa

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
T.Etxeberria 5, 1-C | 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lali
GODEZ ETXEBARRIA
Urkizu, 13 - beheia
Tel. 943206823 / 686859023

PODOLOGOAK



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kalegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kalegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kalegiatu zbkia.)



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

TERAPIA NATURALAK



PODOLOGOA

Maidier
Lopez
Etxeberria

Arragueta 2 Bis-B, Beheia B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kalegiatu zbkia.



DEVI OM
YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapiak naturalak

641 512 059
TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)

Urriak 3

ZAPATUA

11:00etatik
15:30ak arte

*Eibarko
Untzaga plazan*

eta kitto!
JAIA 2026

Antolatzailea

eta kitto!



Laguntzaileak

